



**2017KO EKAINAREN 2KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren bian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2017ko maiatzaren 19an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 50 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HIRU MILA ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HOGEI ZENTIMO (103.089,20 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZ EGINDAKO KONTRATAZIOAK.-

III.1.- Su itzalgailu eramangarrien hornidura eta mantenimendurako kontratazio espedientea.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak 2017ko martxoaren 30eko foru aginduaren bitartez, BABESA SUZAI S.A. (IFZ.: A20095196) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "Su itzalgailuak hornitzea eta mantentzea bai hornitutakoko berriak bai lehen zeudenak, baita BIEak, sute-ahoak eta zutabe lehorrak mantentzea" zerbitzua emateko esparru akordioa (X16026, 1. Lotea) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko maiatzaren 29an emandako txostenaren arabera proposatu du "su itzalgailuak hornitzea eta mantentzea bai hornitutakoko berriak bai lehen zeudenak, baita BIEak, sute-ahoak eta zutabe lehorrak mantentzea" zerbitzua emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak kontratatzea beharko duen zerbitzuaren balio zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko mila ehun eta berrogeita bi (5.202 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua BABESA SUZAI S.A. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez "Su itzalgailuak hornitzea eta mantentzea bai hornitutakoko berriak bai lehen zeudenak, baita BIEak, sute-ahok eta zutabe lehorrak mantentzea" zerbitzua emateko eratorritako kontratua (X16026, 1. Lotea) BABESA SUZAI S.A. enpresari (IFZ.: A20095196) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- BABESA SUZAI S.A., N.I.F.: A20095196, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, programa ezberdinetan, "su itzalgailuak hornitzea eta mantentzea bai hornitutakoko berriak bai lehen zeudenak, baita BIEak, sute-ahok eta zutabe lehorrak mantentzea" gastua jasotzen duten 212.01 kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

III.2.- Suteen eta intrusioaren aurkako sistemak mantentzeko kontratazio espedientea.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak 2017ko martxoaren 30eko foru aginduaren bitartez, SABICO SEGURIDAD S.A. (IFZ.: A20202487) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "suteen eta intrusioaren aurkako sistemen aurre hartze eta zuzenketako mantentze lanak" zerbitzua emateko esparru akordioa (X16026, 2. Lotea) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikulurekin araberak, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko maiatzaren 29an emandako txostenaren arabera proposatu du "suteen eta intrusioaren aurkako sistemen aurre hartze eta zuzenketako mantentze lanak" zerbitzua emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak kontratatzea beharko duen zerbitzuaren balio zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko lau mila hirurehun eta laurogeita bost (4.385 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.



**LAZKAOKO
UDALA**

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua SABICO SEGURIDAD S.A. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez suteen eta intrusioaren aurkako sistemen aurre hartze eta zuzenketako mantentze lanak zerbitzua emateko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X16026, 2. Lotea) SABICO SEGURIDAD S.A. enpresari (IFZ.: A20202487) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- SABICO SEGURIDAD S.A., N.I.F.: A20202487, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, programa ezberdinetan, "suteen eta intrusioaren aurkako sistemen aurre hartze eta zuzenketako mantentze lanak" gastua jasotzen duten 212.01 kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

